

# Schillerri, Schillerri zor zaiona

Bihar beteko dira 200 urte 'Wilhelm Tell' antzerki obra unibertsalaren egilea hil zenetik

JUAN LUIS ZABALA

Fruten artean sinbolikoena da sagarra Mendebaldeko kulturaren, eta hiru sagar nabarmen-tzen dira, gainerako guztien gainetik, Mendebaldeko kulturaren historian: Evak Adani eman ziona, Isaac Newtoni buru gainera erori zitzaiona eta Wilhelm Tell baleztariak semearen buru gainean gezi batez zartzatu zuena. Kondairazko pertsonaia da Wilhelm Tell, XIV. mendekoa jatorriz, baina Friedrich Schillerrek 1804an argitaratutako *Wilhelm Tell* antzerki lana da pertsonaia hori, neurri handi batean behintzat, literatura unibertsalean finkatu duena. Ez zuen hori izan, haatik, meritu bakarra. Antzerkigile gisa ez ezik, poeta eta saiakeragile gisa ere nabarmendu baitzen. Nobela bat ere idatzi zuen: *Der Geisterseher*.

Alemaniak ez du ahaztua Friedrich Schiller, eta ekitaldi ugari antolatuta dira urte osoan, Schiller hil zela 200 urte beteko direla gogoratuz. Bihar da hain zuzen ere mendeurrena, 1805eko maiatzaren 9an hil bai-

tzen Schiller, Alemaniako Weimar hirian.

1955ean eta 1959an ere gogoratu zuen Alemaniak Schiller, baina urte haietan gisa horretako ekimenek ez zuten indar handirik izaten, oso gogoan baitzuden artean ere Hitlerren aginte-ko urteak eta Bigarren Mundu Gerra. Aurtengo mendeurren-eko ekitaldiek Schillerrekiko zorra kitatzeko balio izatea espero dute arduradunek, eta 800.000 euroko aurrekontua duen egitaraua osatu dute horretarako.

## Goetherekin konparatua

Schiller 46 urte lehenago jaio zen, 1759an, Alemaniako Marbach hirian. Eragin handia izan zuen XVIII. mendeko Alemaniako literatura klasikoaren loratzeko. Aduitu batzuek Johann Wolfgang Goetheren parean jartzen dute alemanezko literaturaren historiako ohoreak banatzerakoan. Idazteko trebetasun handiz, guztienezko askatasunaren eta duintasunaren inguruko kezka erakutsi zuen bere idazlanetan.

Euskarara itzultitako Schille-



WILHELM TELL baleztaria, gezia semearen buru gaineko sagarrera zuzentzen, XV. mendeko ilustrazio batean. Schillerren *Wilhelm Tell* da pertsonaia horretan oinarrituta idatzi den literatura unibertsaleko obra ezagunena.

rren liburu bakarra *Wilhelm Tell* antzerki lana da. Ez, haatik, behin edo bitan, lau bider baizik: Iñaki Goenagak egin zuen lehen itzulpena, Joxe Ariztimuño *Aitzol*-ek bultzatuta, eta *Yakintza* aldizkarian eman zuen argitara, atalka, 1934 eta 1935ean. Jaxinto Fernandorenak egindako itzulpena Gero-Mensajerok kaleratu zuen 1976an, Iñaki Zubeldiarena Elkarrek 1984an eta Miguel Anjel Unanuak komiki edizio baterako egindakoa Kriseiluk 1989an.

Iñaki Goenagaren itzulpena Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak (EI-



Friedrich Schiller idazlea.

ZIE) berrargitaratu du oraindik orain, itzultzaileak 100 urte bete dituela-eta egin zaizkion omaldiak bat eginez. Argitalpen horrek liburu gisa eskaintzen ditu itzultzaileak 36ko gerraren aurretik *Yakintza*-n atalka argitaratutako itzulpena. Edizioaren ardura Inazio Mujika Iraolarena izan da.

Horretaz gain, Schillerren hiru poema argitaratu ziren euskarara itzultita, 1959an: *Atzerriko neskatilla*, *Erri-min* eta *Poza'ri oda*. Jon Mirandek euskaratu zituen lehendabiziko biak, *Eganerako*; bestea, berriz, Antonio Maria Labaienek, *Oleri*-rako.

## ► Friedrich Schillerren hiru poema euskaraz

<p>Euskal literatur aldizkarietan euskaratutako hiru poema erakusten ditu <i>Euskal Aldizkarien Gordailua</i>-k (<a href="http://www.armiarna.com">www.armiarna.com</a>): <i>Atzerriko neskatilla</i> eta <i>Erri-min</i> Jon Mirandek itzuli zituen, <i>Egan</i>-en, 1959ko apirillean; <i>Poza'ri oda</i> Antonio Maria Labaienek, Ibalan ezizenez, data berean, <i>Oleri</i>-n.</p>	<p>Beste eguzki batek ondurik, Izadi obe batenak.</p> <p>Bakoitzi zerbait zemakion, Nori frutu, nori lore : Doaiturik zijoan etxera, Naiz mutiko, naiz agure.</p> <p>Arrotz denak, ongi-etorri Zitun; baiñan maitariei Zemakien ernai onena : Lili ederrenak haiei.</p>	<p>Irriz urre-frutuak... Han loratzen den lorerik Ez du ozten Neguak.</p> <p>Zein den eder ibiltzen Han, beti eguzkitan Aizea zein freskagarri dela, gaillur haietan ! Baiñan ez nau uzten joaten Artean den ibaiak, ur gora ozena gatik Ditut biotz-ezbaiak. Ontzi bat dakust zabuka, Ez, oi!, ontzi-maixurik. —Biotz euki ! Utz ezbaiki ! Velak arima bat dik. Siñets ezak, ausart adi. Naiz jainkoak ez berma : Mirazko Errira soilki Mira batek arama.</p>	<p>Eliseo'ko alaba, Suz ordiak sartzen gaitun zerutar gaindegira. Ire lilurak berriz din otu bizkerak etena. Gizon oro anai gatxin ire egak ikututa.</p> <p>Lagunen-lagun irauten Zoria dunak lortu, ta andre laztan bat maitatzen gukin bedi alaitu. Naiz arima soil bat «bere» dei baleza munduan. Ori ezin ba'lu alare, Bego negarrez atean.</p>	<p>Jarrai pozik, anaiak! Garailari antzera.</p> <p>Poza! Jainko-txinpart eder, Eliseo'ko alaba, suz ordiak sartzen gaitun zerutar gaindegira. Ire lilurak berriz din lotu bizkerak etena. Gizon oro anai gatxin ire egak ikututa.</p>
<p><b>ATZERRIKO NESKATILLA</b></p> <p>Aran baten, artzain-artean, Agertzen zan urte-berriz, Lehengo larratxoriekin, Neska bat, ederra guztiz.</p> <p>Ez zan aran hartan jaioa, Iñork ez zekin nongo zen, Galtzen ziran haren oiñatzak, Neskak aldegin ondoren.</p>	<p><b>ERRRI-MIN</b></p> <p>Laño otzak estalitako Ibar honen zolatik Irtetzeko ba nu bide, Zer poza neduke nik ! Muño ederrik han dakust, Beti gazte eta musker ! Baldin egorik ba neuka, Egaz joan neinte laster.</p>	<p><b>POZA'RI ODA</b></p> <p>O Poz! Ez eresí itunik Geigo, abots pozgarri ta alaiagorik baizik!</p>	<p>Poza edan oi du gizonak Natura bularretik, gaizto ala on diranak doaz aren atzetik. Musu ta ardo eman zigun adiskide il arte. Arrak griña izan zizun, Aingeru'k Jaink-aurre.</p>	<p>Besarka elkar milloika! Musu mundu danari Anaiok! Izar zearka dago Aita'ren jauregi.</p> <p>Auzpez jarririk asmatu Nun ote Jauna izango? Orte gainean billatu, Izar tartean bait-dago. Besarka elkar milloika! Musu mundu danari!</p>
<p>Haren ondoan pozez zegon Biotz oro irigia : Andraurenak urrunduta Andra Lasaitasun larregia. Ba zekarzkin lore eta frutu Beste lur batek emanak,</p>	<p>Zeru-bake gozo baten Harmonia ba dantzut, Aize ariñak dakarren Baltsamua sendi dut, Osto illunen artetik</p>	<p>Poza! Poza! Jainko txinpart eder,</p>	<p>Alai! Egan, eguzkiak Ortz garbian bezela.</p>	<p>Poza! Jainko-txinpart eder, Eliseo'ko alaba, Suz ordiak sartzen gaitun zerutar gaindegira.</p>